

ESTATUA «ARRAZISTAK»

AEBetatik Europara heldu da pertsonaia historiko higuigarrien aurkako kanpaina

Ameriketako Estatu Batuak azken hamarkadetako unerik ilunena bizi-tzen ari dira.

Batetik, pandemiaren munduko epizentro bihurtu dira, eta, bestetik, polizia batek bere belaunpean itotako George Floyd beltzaren erailketak eragindako haserrea eta matxinada nagusitu dira. Munduko lehen potentziaren etengabeko beherakada azkartu egin omen da.

Usteak uste, baina, orain ere, AEBetan gertatzen dena, onena zein txarrena, mundu osora ez bada, Mendebaldeko Europara behintzat laster iristen da. Horren erakusle, Floyden erailketa salatzeke protestek astebate baino gutxiago behar izan zuten Atlantikoa zeharkatzeko. Europako hiri gehienetan, Euskal Herrian barne, manifestazio jendetsuak izan ziren aurreko asteburuan. Hiri batzuetan, gainera, batez ere Britainia Handian baina baita Belgikan ere,

 **JENDARTEA** / Dabid Lazkanoiturburu

Ameriketako Estatu Batuetan gertatu bezala, George Floyd beltzaren erailketa salatzeke protesten haritik, historiak goraiapatutako pertsonaien estatuen inguruko eztabaida Europara iritsi da. Zilegi al da arrazista hutsa zen norbaiten omenezko irudiak egotea gure hirietan? Non daude mugak? Batzuek argi dute: ibaiaren hondoan.

protestek biografia gutxienez eztabaidagarria, eta kasu askotan irmo salatu beharrekoa, duten hainbat pertsonaia historikoren estatuak izan dituzte jomugan.

AEBetan aspaldikoa da eztabaida. Giza eskubideen aldeko erakunde askok XIX. mendeko Gerra Zibilean Hegoaldeko konfederatuen alde borrokatu ziren militar eta politikoen estatuak kentzea aldarrikatzen dute. Defendatzen dutenez, gaur egun ere oraindik munduko herrial-

derik aberatsenak pairatzen duen arrazakeria salatzeke beharrezkoa da. Auzi hori dela eta, 2017ko abuztuan ultraeskuindarren eta antifaxisten eta arrazakeriaren aurkako ekintzaileen artean liskarrak izan ziren Charlottesville hirian, Virginian.

Ekintzaileek Charlottesvilleko Udalak Robert E. Lee Konfederazio jeneralaren estatua bat kentzea lortu zuten, ultraeskuindarren haserretako. Konfederazioak beltzen aurkako esklabotza defendatzen zuen

plantazio erraldoietan oinarritutako ekonomia mantentzeko. Iparralde industrialak, yankiek, teoriarik behintzat, arrazen arteko berdintasuna aldarrikatzen zuten. Hala ere, Gerra Zibila irabazi ondoren, “bakea ziurtatzeko” beltzei agindutakoa ez betetzea erabaki zuten, eta, ondorioz, arrazakeriak tinko dirau.

Duela hiru urteko abuztuaren 12 hartan, ultraeskuinak Charlottesvilleira joatea erabaki zuten. Hala, ehunka lagunek, Ku Klux Klan arrazistaren jazarpen ekintzak gogora ekartzen zituzten lastargiak eskuetan eta lelo arrazistak ahoan, AEBetako sortzaileetako bat –eta esklabista– izan zen Thomas Jeffersonen estatua inguratu zuten. Ondorengo liskarretan, giza eskubideen aldeko manifestariak harrapatu zituen ultraeskuindar batek bere autoarekin. Heather Heyer ekintzailea erail zuten.

Charlottesvilleko liskarrek, garaian herrialdeak aspaldian ezagututako larrienak, astindu egin zuten eztabaida. Ultrekin

Ekintzaile talde bat Minneapolisen, Floyden erailketaren osteko protestetan. Chandan KHANNA-AFP



inolako harremanik ez zutela ziurtatzen zuten batzuk ere estatutuak kentzearen aurka azaldu ziren: «gure herriaren historia ukatzea da». Eztabaida, adierazpen askatasuna aitzakia hartuta, AEBetako Eskubide Zibilen aldeko Mugimenduaren bihotzera iritsi zen. Hala ere, berehala argi geratu zen ultrak ez zudelako Konstituzioaren lehen zuzenketa aldarrikatzeko, militar eta politiko arrazistak gorai-patu eta arrazakeriaren aurka-koen kontra egiteko baizik. Poliziaren oniritziarekin, noski.

AUZIA EGUNERATU

Egunotan ere, Floydren hilketak eragindako azken mendeko matxinadarik handienetakoaren testuinguruan, estatuen ausia suspertu egin da berriro. Eta badirudi kentzearen aldekoak gailentzen ari direla.

Richmonden (Virginia), Charlottesvillek gertu, Monroe parkean zutik zen Williams Carter Wickham jeneral konfederatuen estatua bota zuten manifestariak. Wickham abokatua, plantazio baten jabea, politikaria eta Gerra Zibilean zalditeriako jenerala izan zen. Estatua 1891n eraiki zuten, guda amaitu eta 25 urtera. Gudan ospitale izan zen Monroe parkean bertan, beste bi estatua ere badaude. Bat, Fitzhugh Lee jeneral konfederatu eta Robert E. Lee mitikoaren ilobarena. Virginia-ko gobernadoreak, Ralph Northam, agindua eman du handik gertu dagoen osabaren estatua bat ere erretiratzeko.

Richmonden bertan, Kristobal Kolonen estatua eraitsi, erretzen saiatu eta azkenean laku batera bota dute asteon. Manifestariak Ipar Amerikako indigenen aldeko ekintza gisa azaldu dute 1927an jatorri italiarreko komunitateak eraikitako sinboloa eraistea. 2018an, Los

Angelesko Udalak ere itsasgizonaren estatua erretiratu zuen. Are, “Aurrikuntzaren Eguna” birbataiatu eta “Herri Indigenen Egun” bihurtzea erabaki zuen. Richmonekoa, hori bai, ez da 1492an Ameriketara iritsi zen Genovako esploratzailearen estatuek jasotako “eraso” bakarra. Bostonen estatua bati burua moztu diote eta Miamin pintura gorria bota eta “Blacks lives Matter” leloaz inguratu dute.

ARMADA ETA KONFEDERAZIOA

AEBetako Marine indar militarrek konfederatuen ikur guztiak erretiratuko dituela agindu badu ere, Donald Trump presidente eta Armadako buruak hainbat base militarrek dituzten jeneral konfederatuen izenak ez dituela aldatuko ohartarazi du. Charlottesvilleko liskarretan ere, estatutuak kentzearen aurka azaldu zen presidentea.

Hegoaldeko hainbat estatutan jeneral konfederatuen izena duten hamar base militar dau-

Londresen, Churchillren omenezko estatuan arrazakeriaren aurkako lemak marraztu zituzten manifestariak.
Isabel INFANTES-AFP



de. Handiena Fort Bragg da, 1863an Chattanooga gudua galdu zuen Braxton Bragg jeneral ospetsuaren omenez. Georgiako base militar batek Henry L. Benningen izena du, Hegoaldean “Esklabukrazia” bat sortzearen alde borrokatu zuen jeneral esklabistarena. Richmondetik 30 kilometrorra Fort Lee dago, konfederatuen komandante buriaren omenez.

Pentagonoaren baseon izenak aldatzekotan egon zen Charles-tongo sarraskiaren ostean. Hego Carolinako hiri horretan gazte zuri supremazista batek

bederatzi beltz erail zituen eliza batean otoitz egiten ari zirela. Barack Obama AEBetako lehen presidente beltzaren bigarren legealdia zen, baina azkenean Armadak izenak mantentzea erabaki zuen. Demokrata Armadako komandante burua zen.

Orain, berriz, Ordezkarien Ganberako presidentea eta Alderdi Demokrataren burua den Nancy Pelosi Kapitolioan daude militar eta agintari konfederatuen estatutuak erretiratzea proposatu du. «Estatua hauek gorrotoa aldarrikatzen dute, ez gure ondarea», ziurtatu du.

BRITAINIA HANDIAN ERE

Ingalaterrako hego-mendebaldean dagoen Bristol hirian aurreko astean bildu ziren manifestariak Edward Colston XVII. mendeko esklabistaren brontzezko estatua soka batekin eraitsi eta Evon ibaira bota zuten. Aurretik, manifestari batek bere belauna Colstonen lepoan jarri zuen Floydren ohorez. Uda-

AEBetan aspaldikoa da eztabaida. Askok XIX. mendeko Gerra Zibilean Hegoaldeko konfederatuen alde borrokatu ziren militar eta politikoen estatutuak kentzea eskatzen dute

Floydren erailketak eragin duen matxinadak berriro suspertu du estatuen inguruko eztabaida. Badirudi, gainera, estatutuak kentzearen aldekoak gailentzen ari direla

lak uretik atera eta museo bate-
ra eraman du estatua.

Colston Afrikako Errege Kon-
painiako agintaria izan zen,
Kontinente Beltzetik Amerike-
tara 80.000 gizon, emakume
eta haur esklabo bidali zituen
konpainiarena. Garaiko –eta
egungo– kriminal askok bezala-
xe, Colstonek irabazitako diru-
tzaren zati txiki bat bere jaiote-
rrian ongintzan erabili zuen.
Ondorioz, 1721ean zendu eta ge-
ro, estatu bat eraiki zioten. «As-
paldian erretiratu behar zuten
hiltzaile eta esklabista horren
estatua», aldarrikatu du David
Olusoga historialariak.

RHODESIATIK OXFORDERA

Antzeko curriculuma zuen Cecil
Rhodes kolonizatzaileak, baina
Oxfordeko Oriel College presti-
giotsuan dagoen bere estatuak
ez du Tamesis ibaian bukatu.
Hori bai, Polizia argi ibili delako.

Cecil Rhodes Ingalaterraren
nagusitasunaren defendatzaile
amorratua zen enpresa gizona
izan zen, eta Britainiar Inperioa
Afrikan zehar hedatu zuen. He-
go Afrikan diamanteak erauzte-
ko monopolioa zuen eta De Be-
ers firma ospetsua sortu zuen.
Bere abizenari zor zioten izena
Hegoaldeko eta Iparraldeko
Rhodesiak, egun Zimbabwe eta
Zambia. Hil aurretik, Oriol Co-
llege ospetsuari dirutza eman
zion eta bere izena daraman
ikasleentzako beka sistema bat
eratu zuen Commonwealthko
ikasleentzat.

Hego Afrikako Lurmutur Hi-
rian bere omenezko estatua
erretiratu zutenetik, Rhodesen
aurkako kanpaina bere egin zu-
ten Oxfordeko ikasleek. Urteak
daramatzate estatua erretiratze-
ko eskatuz eta ez diete jaramo-
nik egiten. Jada nazkatuta dau-
de eta lortu arte ez dutela etsiko
iragarri dute egunotan “Rhodes
Must Fall” kanpainaren jarrai-




tzaileek bere irudiaren aurrean.
Boris Johnson lehen ministroa-
ren gobernuko Barne ministro
ak, bere aldetik, horrelako
«ekintza bandalikoak» gaitzetsi
ditu.

Protestak ez dira, ordea, aitzina-
ko esklabista eta koloniza-
tzaileetan gelditu. Aurreko
igandean, AEBetako enbaxada-
ren aurreko protestan, Londre-
sen, Winston Churchill lehen
ministro zenaren estatuaren oi-
narrian “arrazista zen” leloa ida-
tzi zuten. Estatuaren inguruan

Edward Colston
esklabistaren eta
Belgikako Leopold II.a
erregearen estatuen
aurkako ekintzak,
Bristolen eta Bruselan.
AFP

**Ingalaterran, Bristol hirian eta Oxfordeko
Unibertsitatean, enpresari esklabistak eta
kolonizatzaileak goraipatzen dituzten irudien
aurkako kanpainak pil-pilean dira**

**Winston Churchillen estatuaren aurreko
protestan, «arrazista» zela salatu zuten
batzuek. Beste batzuek nazien aurkako gerran
lehen ministro zenaren irudia defendatu zuten**



“Beltzen bizitzak inporta du”,
“Kolonialismo britainiarra da
erantzulea”, “Eta Floyd zure se-
mea balitz, zer?” moduko leloak
idatzi zituzten. Sare sozialetan
ikus daitekeenez, manifestari
talde batek «Churchill arrazista-
ta!» oihukatu zuen, beste talde
bat estatua babesten saiatu zen
bitartean.

LEOPOLD II.A BELGIKAKOA

AEBen eta Britainia Handiaren
arteko harreman historikoak
begi bistakoak dira, baina au-
zia Europako beste herrialde
batzuetara ere iritsi da, Belgi-
ka kasu. Azken egunotan Leo-
pold II.a (1835-1909) erregearen
hainbat estatua gorriz margotu-
ta agertu dira eta estatuok erre-
tiratzeko herri ekimena eta si-
nadura bilketa martxan dago.
“Kongo Belgikarraren”, egungo
Kongoko Errepublika Demokra-
tikoaren baliabide naturalak
xahutzeaz gain, Adam Hochs-

child historialariaren arabera 10
eta 15 milioi hildako artean era-
gin zituzten belgikarrek Afrikan
Leopold II.aren erregetzan ze-
har. «Estatua hauek ezin dute
tokirik izan Bruselan, bere 118
barrutietan 200 nazionalitate-
tako jendea hartzen duen Belgi-
kako eta Europako hiriburuan»,
diote ekintzaileek. Jada 44.000
sinadura lortu dituzte eta, ekai-
naren 30ean, Kongoko indepen-
dentiaren urteurrenean, jarri
dute epemuga. Ekintzaileek
Trone Plazan dagoen Leopold
II.aren zaldizko estatua egun
horretarako kentzea exijitzen
dute. «Irudi hau ez da Bruselak
urtero hartzen dituen milioika
turistei erakutsi behar zaiena».

Bruselako Parlamentuko tal-
de politiko gehienek dei egin
diote Gobernuari eremu publi-
koa «deskolonizatzeko» helbu-
ruarekin lantalde bat osa dezan.
Asmoa herrialdearen historia
koloniala aipatzen duten kalee-

tako eta plazetako izenak berrikustea da, batez ere Leopold II.a aipatzen dutenak.

POPULAZIOA ERDIRA JAITSI

Leopoldo II.a erregeak 1879. urtean ekin zion Kongo kolonizatzeari. Izan ere, Afrika osoa Europako potentzia kolonialen artean banatu zuen Berlingo Biltzarrean, errege belgikararen menpe geratu zen “Kongoko Estatu Librea”. Horrela bada, Leopoldo II.ak herrialdeko baliabide natural izugarriak ustiatu ahal izan zituen, tartean kautxua, egungo pneumatikoak asmatzea posible egin zuena. Latinoamerikan eta Asiako hego-ekialdean kautxu basoak usiatzen zituztenekin konpetentzia izugarri zen. Bada, hori dela eta, erregeak “Kongoko Estatu Libreko” herritar denak esklabo bihurtu zituen.

Edmund Dene Morel bezalako kazetariak eta misiolariak salatu zutenez, herritarren aurkako bortizkeria izugarria zen eta zigor moduan eskuak moztea eguneroko kontua zen. Inolako gizatasunik ez zieten onartzen bertakoei, orain dela gutxira arte gainera. Adibidez, Bruselak 1958an hartu zuen Nazioarteko Erakusketan, Kongoko gizon, emakume eta haurrekin “zoo” moduko bat sortu zuten ikusle-eroramenarako.

Isidore Ndaywel e Nziem historialariak egin dituen ikerketen arabera, Leopold II.aren agindupean Kongoko herritarren erdiek bizia galdu zuten, eraillketen ondorioz, goseak, nekeak eta gaixotasunek jota, edo jaiotza-tasak hondoa jo ondoren. Hori bai, erregeak odol, sufrimendu eta aberastasun hori Belgikan izugarrizko herri-lanak egiteko erabili zuen. Adibide gisa, Bruselako Justizia Jauregia. Erromako Pedro Deunaren Basilika baino handiagoa da:



mundu osoan harriz egindako eraikuntzarik handienetarikoa.

EZTABAIDA SUTSUA

Leopoldo II.aren kasua oso argia izan daiteke, ilunegia delako batez ere. Baina eztabaida sutua da hainbat herrialdetan pisu historiko handia izan duten buruzagien inguruan. Churchill bera da horren adibide. Gerra ministroa zenean, 1920an, Irakeko kolonian eztanda egin zuen matxinadarekin amaitzeko mostaza gasarekin eraso ki-

Cecil Rhodes kolonizatzaile britainiarrak toki berezia du Oxfordeko Unibertsitatean, Oriol College prestigiotsuaren fatxadan hain zuzen. Adrian DENNIS

Bruselan Belgikako Leopold II.ak Kongon eragindako sarraskiak gogora ekarri dituzte. Erregearen irudiak eta bere omenezko kale izendapenak kentzeko kanpaina abiatu dute

Historia traumez josita dago eta egunerokoa ere latza da, gaur egun esaterako. Horrek, historia politikoki erabiltzeko joera eragin dezake. Baina zer da historia, politika baizik?

mikoak agindu zituen, 10.000 hildako inguru eraginez. Ez da bere biografia luzean bekatu bakarra, baina, gerora, nazien aurkako gerran izugarrizko ospea lortu zuen lehen ministro gisa, batez ere Londreseko defentsan.

Historia ez da zuria ala beltza, eta pertsonaia historikoen artean grisak dira nagusi. AEBetan, adibidez, George Washington, Thomas Jefferson eta James Madison aberriaren sortzaileek esklaboak zituztela gogora ekarri duenik ere bada, euren idulkietatik bota behar direla defendatuz. Gai korapilatsua, benetan. Samurra dirudi suntsitutzat jotako erregimen zahar bati kontuak eskatzea. Baina kasu askotan gauzak askoz ere zailagoak dira. Noiz, nola, noren aurka jo? Galdera eta zalantza asko.

Historia traumez josita dago eta egunerokoa ere latza da momentu askotan. Egun, esaterako. Horrek, historia politikoki

erabiltzeko joera eragin dezake. «Historia historialariei utzi», exijitzen dute gremiokoek. Baina, «orduan, herriak zer? Ez al du historia egiteko eskubiderik?», diote batzuek. «Baina, nork ordezkatzan du herria?», erantzuten dute beste batzuek.

Nik ere baditut galderak: «Zein zen nire arbasoa? Nire oroimenean betiko gera zedin estatua bat eraiki nion hori? Suntsitu ala ahaztu behar dut?».

Galdera gehiegi eta ziurtasun gutxi. Agian aurkitu dudak bakarra eta niretzat onena duela urte dezente Alejandro Margulisi “Le Monde Diplomatiquen” iritzi artikulu batean irakurri nion. «Hiri handietako eremu publikoetako monumentuak historia irakurri zuten talde nagusien ispilu dira. Baina herritarrengan duten benetako eragin sinbolikoa hain urria da, ezen horien inguruko eztabaidak nahiko alferrikakoak diren».